ASTEKARIA | 2015eko maiatzaren 8an | XVIII. urtea | USURBIL | 614. zenbakia | www.noaua.eus
TOKIKOM

# noaua



**Asteburu honetan hasiko da hauteskunde kanpaina**

**Herri osasuntsua dugu, baina bada hobetzeko tarterik**

**Senior neskekin batera, Santanderrera joateko aukera**

# Etorkizuna josten hasteko garaia

## Gure Esku Dago taldeak Ehuntze Eguna antolatu du larunbat honetarako


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak
www.lhusurbil.com
Maiatzak 9 eta 16
ATE IREKIAK
943 36 46 00


Estética
Lourdes Larrañaga
ESTETIKA
ILEAPAINDEGIA
943 36 28 87 USURBIL
ORAIN ERE ILEAPAINDEGIA!
IREKIERA ESKAINTZA (MAIATZA)
GARBITU ETA ORRAZTU 9,5€
(TRATM. PRODUKTUAK KANPO)
MOZTEA 10,00€
KOLOREA 28,00€
KOLORE + MOZTU 38,00€
METXAK (TXAPELAKIN) 31,00€
METXAK + MOZTU 41,00€
PERMANENTEA 36,00€
PERMANENTEA + MOZTU 46,00€


Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!
ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA
188.000 € tik
12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpin
• Etxebizitza argitsuak.
• Terraza handiak.
• Lorategidun behe solairuak.
• Primerako kalitateak.
• Diseinuzko materialak.
USURBILEN
VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com
943 46 88 60
www.viviendaslanin.com

## Albistea iruditan

# 16 denboraldi eta 500 neurketa eta gero, badoa Andoni Iraola

Badoa. 16 urtetan 500 neurketa baino gehiago jokatu ondoren, agur esatea erabaki du. Denbora honetan, San Mames zaharra eta San Mames berria ezagutu ditu. 33 urteko usurbildarrak denboraldi amaieran utziko du talde zuri gorria. Hala erabakia omen zuen denboraldi hasieratik, hedabideei adierazi dienez, geroz eta zailagoa zaiolako jendearen espektatibei erantzutea. Athleticen kamiseta janztea erantzukizun oso handia dela dio usurbildarrak. Harro dago osatu duen urteotako ibilbideaz. Bere etorkizunaz ez omen du ezer erabaki oraindik. Denboraldia amaitu ostean ikusiko omen du zer egin.




**Kopako finala jokatu nahi du. Lesioek ametsa betetzen utziko dioten, ikuskizun dago.**

## Laburrean

### Udal diru-laguntzen inguruko erabaki proposamena

2015eko udal dirulaguntzak eskatzeko epea otsailaren 26an amaitu zen. Usurbilgo Udalak maiatzaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du udal diru-laguntzen inguruko erabaki proposamena.

Alegazioak aurkezteko epea, maiatzaren 6tik aurrera zabalduko da, eta maiatzaren 16ra arte egin ahal izango dira.

### Herritarren ekarpenak biltzeko epea luzatu egin da

Maiatzaren 7ra arte, Diputazioko aurrekontuetako 2 milioi euro zertara bideratu nahi zenuketen esateko. Etxean jasotako formularioak bete eta udaletxean, Potxoenean, Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian, Arrate zahar egoitzan eta Alamandegin jarrita egongo diren postontzietan utzi ditzakezue. Bestela, aurrekontuahobetzen.net atarian. Informazio gehiago atari horretan.

### Martin Garitanorekin bilera irekia Artzabalen

Martin Garitano Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Foru Aldundiko ordezkaritza bat Usurbila dator ostegun honetan, maiatzaren 7an. Eguerdiko 11:00etan udaletxean udal ordezkariekin egingo duten bilerarekin hasiko dute egun osoko bisitaldia.

Arratsaldeko 19:00etan, bilera irekia deitu dute herritarrekin Artzabalen.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.com
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Idoia Torregarai**

# Gordeketan

Gordeketan jolastea beti gustatu izan zait. Ikastola garaian, bazkaldu ondoren gelako guztiak korrika jaisten ginen frontoi ingurura. Kaxkoko txoko guztiak ederki ezagutzen genituen, bai horixe! Eta behin ezkutaleku ona aurkituta, handik atera gabe egon behar, ikusiko ez bagintuen bila zebilenak. 14:30ak arte hantxe egoten ginen bakoitza bere lubakian, zirkinik egin gabe, nerbioak dantzak, abentura handi batean murgilduta.

Nire pozerako, gaur egun ere ezkutaketetan ibiltzen naiz alaba eta semearekin. Gure etxeak gordeleku askorik ez du (kontzeptu "irekiaren" desabantailak), eta haietan gordeka aritzen gara gora eta behera, algara batean. Zoragarria da guztion ahaleginak ikustea ikusezinak izateko, adibidez, pertxeroaren atzean hankak ageri zaizkienean, edo nireak manta azpian barreari ezin eutsirik nagoenean. Une horietan, txikitako emozio berak hartzen nau.

Euskaldun bezala, ordea, alderantziz gertatzen zait. Toki eta pertsona askorentzat ikusezina naiz, gordeta egon gabe. Arropa dendako langileak, ebakia eskatu diodan tabernariak, administrazioko langileak, portaleko bileran dagoen bizilagunak, mediku espezialistak... ez dituzte nire hizkuntza eskubideak ikusten. Baina nik hemen ez dut gordeketara jolastu nahi. Ikusgarri izan nahi dut. Gaizka Garitanok egin zuen bezala. Euskahalduna izan nahi dut.

Bai badakit; ez da erosoa. Kosta egiten da. Ahalegin handia eskatzen du eta aurpegi/erantzun txar batzuk jasan behar izaten dira. Baina noizbait pentsatu duzue? Zer gertatuko litzateke euskaldun guztiok ikusgarri izateko konpromisoa hartuko bagenu denok batera?

Gaur, adibidez?

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | **Idoia Torregarai** | Joxe Piñas



# Sagastiak loretan diren bitartean

Ikastaroak, ibilaldiak, bertsokatak, San Isidro eguna, Sagardo Eguna... oparoa da Sagastiak Loretan jardunaldien baitan osatu den egitaraua. Larunbat honetan, Xabier Akizuren txanda izango da. Egutegi biodinamikoaz eta Ilargiak nekazaritzan duen eraginaz hitz egingo du Potxoenean.

**Maiatzak 9, larunbata**
09:00-13:00 "Egutegi Biodinamikoa eta Ilargiak nekazaritzan duen eragina" ikastaro teorikoa Potxoenean. Noiz erein, landatu, ongarritu eta kimatu? Uzta hobetzeko kosmosaren eragina baliatu. Xabier Akizuren eskutik. Prezioa: 5 euro, Alkartasunako bazkideek doainik.

**Maiatzak 14, osteguna**
11:30 Usurbilgo sagardoaren ibilbide turistikoaren aurkezpen-prentsaurrekoa Potxoenean.

**Maiatzak 15, ostirala**


Besteak beste, Usurbilgo sagardoaren ibilbide turistikoa aurkeztuko dute datorren astean.

**San Ixidro Eguna:**
10:30 Meza nagusia Salbatore Elizan.
Ondoren, hamaiketakoa eta herri kirolak frontoian.
14:00 Bertso bazkaria Artzabalen. Txartelak salgai maiatzaren 12ra arte, 25 eurotan, Artzabalen eta Alkartasuna Kooperatiban.
18:30 Kalejira herriko erraldoi konpartsarekin.

**Maiatzak 17, igandea: XXXIV. Sagardo Eguna**
11:30 Irekiera ekitaldia.
Goizean zehar, baserriko, Labeldun eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko sagardoa dastatzeko aukera, pintxo aukera zabala.
18:00 "Elektro Patxaranga" kalejiran.

**Maiatzak 23, larunbata**
Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: gaitzen eta izurriteen jarraipena. Aitor Etxeandiarekin.
19:00 Bertsokata egitasmoaren aurkezpena. Bertso saio baten barruan sagar muztio eta sagardoa dastatzen ikastea, Guillermo Castaños enologoaren laguntzarekin. Lekua, zehazteke dago oraindik.

**Maiatzak 30, larunbata**
Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: Ongarriketa. Aitor Etxeandiaren eskutik.

**Ekainak 13, larunbata**
Goizean, sagastien zaintza ikastaroa Potxoenean: Udako kimaketa. Aitor Etxeandiaren eskutik.

## Ika-Mika

# Ucin, legegintzaldi berrirako erronka

Hauteskunde kanpaina-aurre honetan, datorren udalbatza berriari eskaera zuzena egitera noa. Errauste plantaren mamua uxatu genuela uste genuenean, nahiz eta batzuek oraindik eraikitzearekin tematuta jarraitu, usurbildarron airea behin eta berriz kutsatzen aritu da Ucin altzairutegia. Udalak, alkatea barne, legegintzaldiko helburuen artean hartu zuen aspalditik datorren ke isurketa larriari aurre egin eta arazoari konponbidea ematea. Jakitun gara ingurugiro zinegotzia nahiz teknikaria, udaltzaingoaren laguntzarekin, gogotik saiatu direla horretan, eta hobekuntzarik nabaritu ez bada ez dela izan saiatu ez direlako. Badakigu, halaber, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailetik ez dutela laguntza askorik eduki, mota guztietako oztopo eta aurkako jarrerarik ez bada.

Kontua da, urteak pasa eta pasa, bilerak gora eta behera, Ucinen aldetik hitz politak entzun eta arazoa bideratuta zirudienean, kirats sarkor loarazle horrek gero eta maizago jarraitzen duela usurbildarron airea kutsatzen. Euria ari zuenean izaten zen lehen, baina edozein momentutan da egun. Azkenean, Ucin bezalako enpresa baten aurrean Udalaren ahuldadea eta ezintasuna bistan geratu da nabarmen, eta herritarrok, kirats hori toxikoa den edo ez jakin gabe, badaezpada, leihoak itxi eta etsipenez izorratu beste aukerarik ez dugu.

Beraz, panorama ezkor honen aurrean hauteskundeetatik aterako den udal taldeari ausartak izan eta errauste planta baino kutsakorragoa den Ucin arazoari berriro adarretatik heltzeko eskatu beharrean gaude.

**Asier Agirresarobe**

### Udajolaseko izen ematea, ostiralera arte

Izen emate orria beteta (orriak NOAUA!ko egoitzan eskuragarri) eta ordainketa egin dela frogatzen duen ordainagiria. Biak aurkeztu behar dira, maiatzaren 8a baino lehen, NOAUA!ko egoitzan. Kuota: 80 euro. Familia ugariek 65 euro (familia ugarien txartela edo familia liburuaren kopia ekarri behar da).
Ordutegia: 10:00-11:00 / 16:00-18:00.

### Beharren Mapa osatu nahi du Haur Eskolak

Familien beharrei ahalik eta erantzun egokiena emateko asmoz osatu nahi dute mapa. "Horretarako, 2013., 2014. eta 2015. urteetan jaio diren eta jaioko diren haurren familiei Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra aurreikusten badute, deitzea edo bertaratzea eskatu nahi diegu". Maiatzaren 15a arte dago epea. Ordutegia: 8:30-12:15.
Telefono zenbakia: 943 374061.
Emaila: haureskola@udarregi.com

### Kafe tertulia, Matrakak deituta

Usurbilgo Talde Feministak maiatzaren 23rako antolatu du. Helburua, emakumeak batu eta kafe baten bueltan tertulia saio bat egin. Zehaztasun gehiago datorren NOAUA!n.

### Plan Orokorra, alegazio epean

Usurbilgo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren aurrerakina jendaurrean ikusgai jarri du Udalak. Iradokizun edo alternatibak aurkezteko aukera ere bada. Alegazioetarako epea: ekainaren 24ra arte.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

# Usurbilgo EHBildu auzoz auzo ari da aurkezpenak egiten: "Herri programak irekia segitzen du"

Herriarekin batera eta herriarentzat lan egitea izango da, Usurbilgo EHBilduren datozen 4 urteotarako eginkizun nagusia. Hala zioten koalizioak maiatzaren 24ko udal hauteskundeetara aurkeztuko duen taldeko kideek, hilabete hauetan herritar eta eragileekin batera landuriko herri programa aurkezteko, astelehenean hasi zuten aurkezpen bilera errondan. Auzoz auzo osatuko duten ibilbidea, Kalezarko Haur Eskolan abiatu zuten.

Hauteskundeetara aurkeztuko den taldeak, arloz arloko egitasmo azpimarragarrienak laburbildu zituen. Herri programa osatzeko egin den prozesua ere iruditan ikusteko aukera izan zuten. Apirilaren 26an Dema plazan egindako hautagai taldearen aurkezpen ekitaldikoak ere bai.



Astelehenean Kalezarren izan ziren. Programaren lerroburuak azaldu ondoren, proposamenak egiteko tartea zabaldu zuten.

**Herritarren iritziak biltzen segi nahi**

Udal hauteskundeetara aurkeztuko den taldetik azpimarratu dutenez halere, saio hauek ez dira herri programa aurkezteko soilik. Orain arte egin duten moduan, herritarren iritzi eta proposamenak biltzen segitzeko baizik. "Herri programak irekia segitzen du", gogorarazi zuen Xabier Arregi, EHBilduko alkategaiak, Haur Eskolako aurkezpenean. Bere esanetan, programa egunez egun osatzen segi behar da.

Horretarako, herritarren iritziak jasotzen jarraitzea ezinbestekotzat jotzen dutenez, aurkezpen bilerok ez dira herri programaren nondik norakoen berri jasotzeko bakarrik, parte hartzeko baita. Kalezarko Haur Eskolako ekitaldia bezala. Herri programaren lerroburuak entzun ostean, bertaratu zirenek hartu zuten hitza. Entzundakoaren inguruan proposamenak egin edota iritziak emateko tartea zabaldu zuten. Esandakoen artean, kezka bat mahai gaineratu zuten; gazteen parte hartze falta herrigintzan. Proposamenik bazen baita; zenbat herritar partaide dituen jakinik, herriko kirol mugimendua zaindu beharra.

*EH Bildu*

***Herritarren iritziak jasotzen jarraitzea ezinbestekotzat jotzen dutenez, bilera hauek ez dira herri programaren nondik norakoen berri jasotzeko bakarrik, baita parte hartzeko ere***

**Lerroburuak**

2015-19 legegintzaldian, Usurbilgo EHBilduk bideratu asmo dituen proiektuak ugariak eta anitzak dira. Ezin denak kabitu hemen. Labur labur, aste hasieran Haur Eskolan egin zuten aurkezpenean, arloz arlo gauzatu nahi dituzten proiektu nagusien berri eman zuten:

- ■ Parekidetasuna: II. Parekidetasun Plana lantzea.
- ■ Tokiko Garapena: bertako produktuak eta aktibitate sozioekonomikoak zaindu eta bultzatzea.
- ■ Gizarte Zerbitzuak: behar handiena dutenen zainketa.
- ■ Lurralde antolaketa: udalerriaren garapen jasangarria bultzatzea.
- ■ Udal zerbitzuak: argiteria eta ur sarean inbertsioak, udal lokalen erabilera sustatzea…
- ■ Ingurumena: zero zabor bidean sakontzea, erraustegiaren mehatxuari aurre egitea, kutsaduraren inbentarioa egitea…
- ■ Nekazaritza: sektorearen gainbeherari frenoa jartzea, sektore honetako langileen lanaren errekonozimendua…
- ■ Hezkuntza: eskolek presentzia aktiboa izatea herrigintzan, Hezkuntza Mahaiak lanean segitzea…
- ■ Aniztasuna: euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea udalerrira bizitzera datozenei.
- ■ Euskara: erabilera sustatzeko neurriak, doako euskalduntze prozesua…
- ■ Kirola: kirol taldeen bilgunea osatzea, entrenatzaileen formazioa…
- ■ Gazteria: parte hartze zuzena sustatzea, espazio autogestionatuak bultzatzeko saiakera egitea…
- ■ Parte hartzea: herriaren zerbitzura egongo den udal irekia izatea.

**Datozen herri programaren aurkezpen saioak**

Kalezar, Zubieta eta Txokoaldeko lehen saioen ostean, auzoz auzoko bilera errondarekin jarraituko du Usurbilgo EH Bilduk, datorren astean:

**Maiatzak 11, astelehena**
19:00 Aginagako ludoteka.

**Maiatzak 13, asteazkena**
19:00 Santuenea auzo elkartea.

**Maiatzak 16, larunbata**
12:30 Kaxkoan, Sutegi aurrean: Pintxotxotx solasaldia hautagaiekin.

# EAJ-PNVren konpromisoa: “Usurbildarren ongizatea bermatu, inbertsioak handitu eta akordioak bilatu”

Usurbilgo Euzko Alderdi Jeltzaleak dekalogoa osatu du udal eta foru hauteskundeetarako diseinatu dituzten proposamenekin. Jeltzaleek argi daukate Usurbilek “bultzada eta haize berria” behar dituela. Izan ere, Udala ezker abertzalearen eskuetan egon da azken hamarkadetan, eta “herria oso motelduta dago kudeaketa kaxkarraren ondorioz ez baita apenas inbertsiorik egin”.

Egoera horri aurre hartzeko, Josune Urkolak eta bere zerrendakideek EAJ-PNVrengan konfiantza izateko eskatu diete herritarrei, alderdi hau izango delako Usurbili “haize berria eta aniztasuna” ekarriko dizkiona.

Herriaren norabidea aldatzeko helburu horrekin, EAJ-PNVk honako konpromisoak hartu ditu:



Usurbilek “bultzada eta haize berria” behar dituela dio EAJk eta dekalogo bat proposatu diete herritarrei.

**“Usurbildarren ongizatea bermatu”**
Lankidetzatik zerbitzuak bermatu eta denengana iristen saiatuko gara. Herriko enpresen eta merkatarien egoera eta kezkak ezagutu eta gertutasunetik bideratuko ditugu, herriko ekonomia suspertzeko eragile bilakatuz.

**“Udalaren gastu finkoa murriztu”**
Gaur egun, Udalaren %88 gastu finkoak mantentze-lanak ordaintzeko erabiltzen da. Hau da, hamar eurotatik zortzi. EAJ-PNVk diru kopurua gutxitzeko konpromisoa hartu du.

*EAJ-PNV*

***“Gastu finkoak murrizteak, inbertsioak handitzeko ahalmena emango dio Udalari. Eta hori da, hain zuzen ere EAJ-PNVren asmoa, azken urteetan ez baita apenas inbertsiorik egin”***

**“Inbertsioak handitu”**
Gastu finkoak murrizteak, inbertsioak handitzeko ahalmena emango dio Udalari. Eta hori da, hain zuzen ere, EAJ-PNVren asmoa, azken urteetan ez baita apenas inbertsiorik egin.

**“Eraikin berria musika eskolarentzat”**
Zumarte musika eskolak eraikin berria behar du, gaur egungo eraikina egoera tamalgarrian dagoelako.

**“Kirol instalakuntzak hobetu”**
Kirol instalakuntzen gabezia ikusten dugu. Erantzun eraginkor eta azkar bat landuko dugu hainbat klubek egiten duten lana eta dagoen eskaria kontutan hartuta.

**“Eskola publikoaren aldeko apostua”**
Eskola publikoaren alde lan egingo dugu.

**“Garapen iraunkorraren alde egingo dugu”**
Zelaien eta gune berdeen mantentze programak bultzatuko ditugu eta landa guneko azpiegiturak hobetuko ditugu.

**“Hondakinen arazo ekonomikoa konponduko dugu”**
Azterketa sakona egingo dugu hondakinen arazoari irtenbide adostua bilatzeko. Egungo kudeaketa garestiegia da eta 300.000 euroko defizita dauka.

**“Garapen agentzia eskualde osoarentzat”**
Buruntzaldea osoari zerbitzua emango dion garapen agentzia eraginkorra bultzatuko dugu. Eskualdeko enpresak, enplegua eta turismoa bultzatu eta sustatzea izango dira agentziaren helburuak.












# Larunbat honetan, Ehuntze Eguna

TAILERRAK, HERRI BAZKARIA, BERTSO SAIOA... GURE ESKU DAGO TALDEAK ANTOLATU DUEN EGUNEAN

Gogoan izango duzue. Iazko ekainean izan zen. Erabakitzeko eskubidearen alde jendetza batu zen Durangotik Iruñera egin zen giza-katean. Gure Esku Dago taldeak beste ekimen bat prestatu du ekainaren 21erako. Hiriburuetan batzeko deia zabaldu dute. Eguerdi partean, "oihal-giza katea egingo da eta ondoren futbol estadioetan ekitaldi ikusgarria izango da: bertan oihal ezberdinekin hautestontzi erraldoia osatu eta erabakitzeko eskubidea irudikatuko da". Girotzen joateko, Ehuntze Eguna antolatu dute larunbat honetan Usurbilen.

Euskal Herriko auzo eta herri askotan, aurreko asteburuan ospatu zuten Ehuntze Eguna, (edo Joste Eguna, bi adierazpideak baliatu dituzte). "Guk Usurbilen maiatzaren 9an egingo dugu. Orain arteko lana azaleratu eta ekainaren 21erako indarra hartzeko asmoz. Erabakitzeko Eskubidearen alde josten ari garen sarea azaleratzeko ordua iritsi da, beraz", Usurbilgo Gure Esku Dagok (GED) aditzera eman duenez. Larunbat honetan, Mikel Laboa plazan, bat egingo dute jaiak eta aldarrikapenak.




Gure Esku Dagok iragarri duenez, egun osoko festa izango da. Eguerdian herri bazkaria egingo da eta txartelak aldez aurretik erosi behar dira.

*GURE ESKU DAGO*

***"Haria, margoak, oihalak… eskura izango dira Mikel Laboa plazan. Eta egon dadila lasai josten abila ez dena ere, laguntzeko prest egongo baita Usurbilgo jostun talde eder bat"***

## Goiz partean, josteko tailerrak

11:00etatik aurrera, ekainaren 21ean hautestontzi erraldoiak osatzeko erabiliko diren oihalak apaindu eta pertsonalizatzeko aukera egongo da. "Usurbilgo GED taldeak guztion eskura jarriko du materiala (errotulagailuak, haria, margoak, oihalak…) eta egon dadila lasai josten abila ez dena ere, laguntzeko prest egongo baita Usurbilgo jostun talde eder bat".

## Eguerdian, bazkari herrikoia

"Goiz guztian zehar jostun lanetan ibili ondoren gose apur bat egingo zaigula pentsatuta, bazkari herrikoia prestatu dugu 14:30ak ingururako. Menu arruntaz gain (oilasko paella, txekor-masailak saltsan, postrea eta kafea), haurrentzako menu berezia (makarroiak eta izozkia) ere izango da aukeran, Mikel Laboa plazan ahalik eta herritar gehienok bildu gaitezen".

Txartelak maiatzaren 6ra arte egongo dira salgai 15 eta 5 eurotan; Usurbilen Bordatxon, Irratin, Aitzagan, Patrinen eta Lizardin, Aginagan Arraten eta Zubietan Alamandegin.

## Bertso musikatuak

Bazkalondoren, bertso musikatuekin gozatzeko aukera izango du Mikel Laboa plazara hurbildu nahi duen guztiak. Jon Martin, Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" eta Jokin Labayen arituko dira bertsolari lanetan, Haritz Casabalek jarritako gaiek eta Ixak Arruti, Eneko Sierra eta Urtzi Olaziregiren doinuek lagunduta.

## Amaiera ekitaldia

Bertso musikatuen ondoren eta Ehuntze Eguna ixteko, "oihal-katea osatuko dugu guztion artean, egunean zehar egindako lana azaleratu eta ekainaren 21erako indartsu gaudela erakusteko".

Aipatutako ekintzez gain, informatu, kide egin edo kamiseta berria erosi nahi duen orok aukera izango du Mikel Laboa plazara hurbilduz gero.

## Herriko talogileak: "Sagardo Egunean ipiniko dugu azken aldiz talo-postua"

Hogei urte baino gehiago egin ditu herriko talogile taldeak azoka eta festa egun nagusietan lanean: Sagardo Eguna, Artisau Azoka, Erle Eguna, Santo Tomas azoka... Frontoian izan dira lanean. Idatzi honen bitartez, taloak egiteari uztea erabaki dutela jakinarazi dute. Sagardo Egunean arituko dira azkenekoz. Baina erreleboa hartu nahi dutenei laguntzeko prest agertu dira.

"Ezaguna da urte guztiotan izandako xedea: ospakizun egunok taloak eginez osatu eta alaitzea, eta herriko presoen senidei laguntzeko dirua biltzea. Asmatu dugulakoan gaude. Urteak ordea ez dira alferrik pasatzen eta guri ere nekea gailendu zaigu. Gauzak hala, adierazpen honen bitartez, taloak egiteari uztea erabaki dugula jakinarazi nahi dizuegu guztioi. Datorren maiatzaren 17an ospatuko den Sagardo Egunean jarriko dugu azkeneko aldiz talo-postua.

Eta benetan pena ematen digu soka besterik gabe etetea. Horretxegatik otu zaigu hartutako erabakia publiko egitea eta sosak biltzeko jardunbide honetan interesa izan dezakeen herriko beste elkarte edo talde bati testigua pasatzen saiatzea. Daukagun material guztia (txapak, suak, taula ...) interesa duen talde berriaren esku uzteko prest gaude. Baita gure ezaguera (materiala, erosketak, kopuruak...) partekatzeko ere. Beraz, interesatuta zaudetenok gurekin harremanetan jarri besterik ez duzue: maiatzaren 17an, Sagardo Egunean, ohiko lekuan, frontoi atzean jarriko dugu azkenekoz talo-postua. Hurbildu eta ikusi guztia bertatik bertara. Animatu soka eten ez dadin.

Bukatzeko, urte guztiotan, batera edo bestera gurekin izan zareten guztioi: mila-mila esker".

Herriko talogileek, halaber, eskerrik sentikorrena adierazi nahi die "ospakizun hauek antolatzen aritutako herritarrei urte hauetan guztietan eskainitako arreta eta laguntzagatik".

gattunk
KILOMETROAK 2015 USURBIL

KILOMETROAK 2015 USURBIL

**Jose Luis Zumetaren serigrafia** lortzeko aukera izango duzu, hain zuzen ere. Artelan hau **GATTUNK, KILOMETROAK** Usurbilgo aurkezpen ikuskizunean bertan egin zuen artista usurbildarrak Udarregi ikastolako ikasleen laguntzaz, eta **Usoa Zumetak** serigrafiatu du.







**150 serigrafia** egin dira, eta bakoitza **150 eurotan** jarriko dugu salgai Udarregi ikastolaren alde. **Ikastolako idazkaritzan** eskuratu daiteke, eta erreserbak telefonoz **(943 36 12 16)**, emailez eta **GATTUNK dendan** egin daitezke.

# 3. SAGASTIAK LORETAN OSPAKIZUNA

SAGARRONDOEN LORALDIAREN GORAZARRE EKIMENA USURBILEN

**Maiatzak 14, ostirala**
11:30 POTXOENEAN
USURBILGO SAGARDOAREN IBILBIDE TURISTIKOAren aurkezpen-prentsaurrekoa. Potxonean 11:30etan

**Maiatzak 15, ostirala**
SAN ISIDRO EGUNA
10:30: Meza Nagusia Salbatore Elizan. Ondoren, Hamaiketakoa eta Herri Kirolak frontoian.
14:00: Bertso-bazkaria Artzabalen.
18:30: Kalejira herriko erraldoi konpartsarekin. Aitor Etxeandiaren eskutik.

**Maiatzak 17, igandea**
XXXIV. SAGARDO EGUNA
Usurbilgo Goiko plazaren inguruan, egun osoz.

**Maiatzak 23, larunbata**
19:00 GAZTETXEAN? SAGARDOTEGIAN?
BERTSOKATA Egitasmoaren aurkezpena.
Bertso saio baten barruan sagar muztio eta sagardoa dastatzen ikastea. Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariekin. Usurbilgo Gaztetxean? sagardotegiren batean?. Arratsaldeko 19:00etan. Guillermo Castaños enologoaren laguntzarekin.

**Maiatzak 23, larunbata**
POTXOENEAN
SAGASTIEN ZAINTZA IKASTAROA: Gaitzen eta izurriteen jarraipena.Aitor Etxeandiaren eskutik.

**Maiatzak 30, larunbata**
POTXOENEAN
SAGASTIEN ZAINKETA IKASTAROA: Ongarriketa. Aitor Etxeandiaren eskutik

**Ekainak 13, larunbata**
POTXOENEAN
SAGASTIEN ZAINKETA IKASTAROA: Udako kimaketa. Aitor Etxeandiaren eskutik.

# Debekutik, prebentziora

Jaiak, adin txikikoak eta substantzia ezberdinen kontsumoa. Ez da gaurko kezka. Errealitate horrekin elkarbizi gara, baina bada zer aldatu eta hobetua noski. Baita #Kilometroak15 ekimenean ere. Debekuak eragin handirik ez dutela izaten ikusita, bestelako lanketa garrantzitsuan murgildua dabil, urriaren 4an ospatuko den jaialdiko antolakuntza batzordeetako bat; guraso, udal teknikari, Ziortzako kideez edota osasun publikoko ordezkariez osaturiko prebentzio taldea. Erronka potolo bat dute esku artean; festa giroan ematen den alkoholaren edate neurrigabea saihestu eta kontsumo arduratsua sustatzea, adin txikikoen artean bereziki.

Duela bi urte, Tolosako Kilometroetan hasi, eta iaz Orion egin zuten lanketari jarraipena eman nahi zaio Usurbilen. Beti ere, udalerri honetako errealitate eta beharretara egokituta. Prebentzio taldeak udazkenetik darama gogor lanean. Aurreko urteetako Kilometroetako antolatzaileekin harremanetan jarri eta esperientziak biltzen aritu dira. Alor honetan egindako lanaren emaitzek bestelako jai eredua sustatzeko bide bat ireki dutela antzeman baitute. Eginiko lanak eragina izan du. Eta Usurbilen bide horretan sakondu nahi du prebentzio taldeak.

**Formazioa eta sentsibilizazioa, lan tresna nagusiak**

Herritar eta eragileekin batera landu nahi duten gaia da hau. Horretarako antolatu dute prebentzio tailerra, maiatzaren 14rako. Ez bakarrik azalpenak entzuteko, baita bertaratzen diren herritar eta eragileen kezka eta esperientziak partekatzeko. Datozen hilabete hauetarako ere sentsibilizazio eta formazio saioak bideratuko dituzte ikasleekin, ostalariekin, baita urriaren 4ko jai egunerako antolatzen dabiltzan prebentzio ibiltaria ekimenean parte hartuko duten gazte bolondresekin. Aurreko edizioetako Kirol Erronka arrakastatsua ere antolatzen dabil beste herritar talde bat. Jaiak beste modu batean bizitzeko aukera eskaini nahi zaie gazteei.

Dekalogo bat ere osatu dute, urriaren 4rako; ostalari edota txosnetako kideentzako jarraibideen artean dira, alkoholik gabeko edarien kontsumoa sustatzea, adingabekoei edota intoxikazio zantzuak dituztenei alkoholik ez saltzea, edota drogen kontsumoen propagandarik ez egitea.

Argi diote, gai honek "herri osoaren konpromisoa eskatzen du". Eta lanketa urte osoko ekimenetara zabaltzea. Prebentzio lana denon ardura denez, "ezin dugu beste aldera begiratu. Heldu behar zaio gaiari" diote prebentzio taldetik.

**Hausnarketarako tartea, prebentzio tailerrean**

Maiatzaren 14rako prebentzioaren inguruko mahai-ingurua antolatu dute 18:00etan Potxoenean. Izar Arregi, Lukene Lizaso eta Felix Zubia adituek parte hartuko dute. Izarrekin hitz egin dugu.



Prebentzioaren inguruko mahaingurua antolatu dute maiatzaren 14an. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da, eta Potxoenean izango da.

**DEKALOGO BAT**

***Gida modukoa osatu nahi dute urriaren 4rako: alkoholik gabeko edarien kontsumoa sustatzea, adingabekoei edota intoxikazio zantzuak dituztenei alkoholik ez saltzea, edota drogen kontsumoen propagandarik ez egitea***

**Zer helarazi nahi duzue hitzaldiaren bidez?**

**Lukene Lizaso:** Lortu nahi genukeena gaurko aisia ereduaren inguruko eztabaida sortzea, asteburu eta jaietan gertatzen denaren inguruan hausnartzea da, batez ere nerabeek egiten dituzten kontsumoak oinarritzat hartuz.

**Zergatik lan egin behar da prebentzioan?**

Prebentzioa bezalako lan eremu bat oso surrealista dela esan daiteke, batez ere egindako lanak ez dituelako fruituak momentuan ematen. Informazioa ematea ongi dago, objektiboki emandako ideien inguruan hausnarketa pertsonal eta taldekoak egiteak bestearen ikuspuntu eta iritziak ezagutzeak, gaiaren inguruan egin daitekeen lanketa egoki edo egokituago bat egiten lagunduko baitigu. Gazteei gaia interesgarria egiten zaie, gertu ikusten baitute eta kuriositate handia izan ohi dute, askotan beraien iritzia entzuten ari zarela oso baliagarria izaten da, kontsumoen atzean askotan lotsa edota autoestima falta handia izaten baita.

**Zer iruditzen zaizu #Kilometroak15 ekimenaren bueltan prebentzioaren alorrean herrian egiten ari den lanketa?**

Herri mailako inplikazioa ikustea oso interesgarria izan ohi da, herri kontzientziatua dela erakusten baitu. Herriko nerabeak heztea etxekoen ardura dela ikusi ohi da eskolaren laguntzarekin, baina herri mailan errealitate mota hauek lantzeak, herri hezitzaile bat izatera eramango luke, herritar guztien iritziak kontuan hartuaz.

**Hitzaldia parte hartzailea izatea nahi duzue.**

Gaiaren inguruan zer esana, iritzia edota kontzientziazioa duen oro etortzera gonbidatuko nuke. Jende mota ezberdinak elkartzeak iritzi eta eztabaida interesgarri asko ekar ditzazke. Gonbidapena herri osoari luzatu nahiko nioke.

## #Kilometroak15, datozenak

**Maiatzak 10, igandea**

■ Herri Urrats Senperen. Bertaratzeko gonbita.

**Maiatzak 16, larunbata**

■ 19:00 "Hamen bea" herri antzezlana Sutegin.
Antzezleak: Maitere Alkorta, Kerman Errekondo, Mikel Alkorta, Alberto Pikabea, Pako Agudo, Mikel Elexpe, Paulino Ibargoien eta Iñaki Agirresarobe.
Zehaztasunak: "KMK 2015-eko aurkezpen ikuskizuneko Txamuntoko eskenaren jarraipena".
Sarrera: 3 eurotan Lizardin eta Txirristran.

**Maiatzak 17, igandea**

■#Kilometroak15-en aldeko tonbola, Aritzetako izkinan. Materiala uzteko: Udarregi Ikastolako idazkaritzara (943 361 216) edo antolatzaileei (633 155 879, Ana) deitu.

# Edertu zaitez!



















Auto Guria s.l
BERRIZ ZUEKIN!
Auto Guria
Mobil Service
Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak
943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Poligonoa USURBIL


IES BHI
LASARTE • USURBIL
LASARTE-USURBIL INSTITUTUA
Zure aukera
• D.B.H.
• BATXILERRA
AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 4tik 14ra
lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277
www.instilasarte.hezkuntza.net

# Herri osasuntsua dugu, baina bada hobetzeko tartea

Emaitzak onak dira. "Usurbilgo herria osasuntsua da. Baina bistan da hobetzeko aukera dagoela, eta aurrera begira ere horretan jarraitu beharko dugu, identifikatu diren arazo horiei erantzuna emanez". Hala diote Usurbilgo Udaleko Ongizate Sailetik, herrian egin duten osasun diagnosiaren inguruan. Eginiko lanketaren berri eman diote NOAUA!ri.

**Zergatik planteatzen duzue diagnosi hau egiteko beharra?**

**Usurbilgo Udala, Ongizate Saila:** Bizi garen gizarte eta ingurumenak jendearen osasun eta ongizate-mailan eragina du: familia-giroak, ondasun materialak, desberdintasun sozial eta ekonomikoak, lan egoerak, lan baldintzak, hirigintzak, eskainitako zerbitzuak, elikagaien kalitateak eta bizi garen inguru sozialak. Osasun zerbitzuek eta Udaleko jardunak ere prebentzioko neurriak ezar ditzakete. Hasieratik aipatu genuen herritarren osasun egoeraren ezagutza izan eta ondoren, arazoen sorburutik konponbideak jartzeko asmoa.

**Udalerriari eginiko osasun azterketa bati buruz hitz egiten ari gara?**

Bai. Osasun azterketa bat gauzatzeko garaian lehendabizi lehenetsi behar genuen nondik hasi, gaia oso zabala eta konplexua delako. Normalean, Udaletatik adinekoei zuzendutako kirola edo elikadura aholku-ekintzak gauzatzen dira. Baina guk, biztanleria orokorraren osasun egoera ezagutzeaz gain, gaur egungo nerabeen osasun egoera nolakoa den jakin nahi izan dugu. Azterketa egiteko, Udal Gizarte Zerbitzuetako departamentua, EHU-ko Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publiko Saila elkarlanean aritu da. Azterketaren emaitzei esker, Usurbilgo biztanleriaren osasun egoera orokorraren inguruko informazioa eskuratzeaz gain, nerabeen osasunaren inguruko datuak eskuratu ahal izan ditugu.



**Gurasoen eta nerabeen prestutasuna funtsezkoa izan da azterketa egiteko orduan.**

*UDALETXEKO ONGIZATE SAILA*

***"Biztanleria orokorraren osasun egoera ezagutzeaz gain, gaur egungo nerabeen osasun egoera nolakoa den jakin nahi izan dugu"***

**Udarregi Ikastolak, anbulatorioak... Nortzuk eta nola parte hartu dute diagnosi honetan?**

Biztanleriaren osasun egoera ebaluatzeko, Osakidetzako hainbat datu baliagarri erabiliz azterketa sakon bat egin da. Eta nerabeen errealitatea ezagutzeko berriz, herriko 12-16 urteko ikasleengana zuzendu gara inkesta baten bitartez, elikatze-ohiturak, ariketa fisikoa eta teknologia berrien kontsumoa ezagutzeko. Udarregiko ikasleen kasuan, parametro antropometrikoen neurketak burutu dira ikastetxean bertan. Hemendik, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guraso eta nerabe guztiei eta baita ere, Udarregiko kolektiboari, azaldutako prestutasunagatik, lan hau burutzen emandako laguntzarengatik.

**Amaitu duzue diagnosia?**

Behin datu guztien bilketa eginda, datuak interpretatu dira eta dagoeneko esku artean dugu azken diagnosiaren dokumentua. Honetaz gain, nerabeen osasun egoeraren diagnosiaren emaitzak aintzat hartuz, Usurbilgo Nerabeen Osasun Plana garatu da: "Nerabeen Osasunari Aurre Hartuz" izenekoa. Helburu nagusiak nerabeen osasuna hobetzea eta osasunarekiko nerabeen artean egon daitezkeen desberdintasunak gutxitzea dira, besteak beste. Hainbat lerro estrategiko zehaztu dira eta orain, hauen baitan, osasuna sustatzeko ekintzak definitzen ari gara.

## Usurbilen, "EAE eta Gipuzkoako herrien antzeko egoera"

**Zer nolako emaitzak bildu dituzue?**

Usurbilgo aldagai ezberdinak EAEkoekin edota Gipuzkoakoekin alderatu dira. Usurbilgo herritarren osasun egoera EAE-ko eta Gipuzkoako herritarren osasun egoeraren antzerakoa dela esan dezakegu, baina baditu hainbat bereizgarri. Azterketa egiterakoan honako aldagaiak aztertu dira: ezaugarri soziodemografikoak, ezaugarri sozioekonomikoak eta osasun faktoreak (gaixotasunak eta jaiotzetiko bizi itxaropena).

**Ezaugarri soziodemografikoak**

■ Usurbilek gazte portzentaia altuagoa du, EAE, Gipuzkoa eta Donostialdearekin alderatuta. Piramide poblazionalaren egitura egokia aurkezten du.

**Osasun faktoreak**

Gaixotasunen intzidentzia eta hilkortasuna aztertu dituzte:

■ "Gaixotasunei dagokionez, EAEko populazioaren heriotz arrazoi nagusiak aurkezten dira. Gizonetan, tumore gaiztoak dira heriotz gehien eragiten dituztenak. Emakumeetan, ordea, zirkulazio sistemako gaixotasunak.

**Osasun faktoreen ondorioak helduen artean**

■ "Usurbilgo emakumeek, EAE bezalako arriskua erakusten dute. Biriketako minbizian ematen ari den gorakada kontuan hartzeko faktoreetako bat da".

■ "Usurbilgo gizonek berriz, hainbat gaixotasunez hiltzeko EAEn baino arrisku txikiagoa daukate. Honetaz gain, bizi itxaropena, EAEko bataz bestekoa baino haundiagoa da".

**Osasun faktoreen ondorioak gazteen artean**

■ "Gazteen gehiengoak pisu egokia du. Kontutan hartzekoa da mutiletan gehiegizko pisua eta obesitatearen prebalentziak adinarekin goraka dihoazela".

